

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak etxerik gabeko pertsoneri muturreko hotz-egoeretan larrialdiko arreta emateko baliabideak jarri ditu martxan

La Sirenan gaitutako Neguko Aterpea baliabidez gain, kaleko arreta emango da bereziki kalteberak diren pertsoneri zuzenduta

Donostiako Udalak gaur, azaroak 16, jarriko ditu martxan neguan etxerik gabeko pertsoneri larrialdiko arreta emateko aldi baterako baliabideak, hirian muturreko hotza aurreikusten den gauetan aktibatuko direnak.

Eneko Goia alkateak La Sirenako aterpetxea bisitatu du Mariaje Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotziarekin batera, eta nabarmendu duenez, "Donostia erreferente bat da etxerik gabeko eta gizarte bazterketa egoeran geratzeko arriskuan dauden pertsoneri zerbitzuak emateko orduan, haiekin modu integralean lan eginez egunerokoan, eta larrialdi-egoeretan beharrezkoak diren baliabideak eskainiz".

Izan ere, etxerik gabeko pertsonentzako urte osoan zehar dauden baliabide iraunkorrez gain, Gizarte Ekintza Zerbitzuak protokolo zabala du, eta hainbat harrera-eta arreta-baliabide aktibatzen ditu neguko muturreko eguraldiak ondorio kaltegarriak izan ez dezan kalean lo egiten duten pertsonen osasunean.

Muturreko hotz-gauetarako baliabideak

Duela urte batzuetatik hona, Donostiak etxerik gabeko pertsonentzako harrera zerbitzua du muturreko hotz-gauetarako. Neguko Aterpe hori La Sirenan dago (Igeldo pasealekua, 25) 2021etik, eta azaroaren 16tik apirilaren 1era bitartean aktibatuko da, Euskalmetek kostaldean izozte arriskua dagoela adierazten duen gauetan. Baliabide horrek etxerik gabeko pertsonentzako 100 plaza gehitzen dizkie urte osoan dauden baliabideei.

Neguko protokoloa aktibatzen denean, aterpetxea 22:00etatik 08:30era egongo da irekita, eta sarrera prozedura egokia dela bermatzeko, txartel bat aurkeztu beharko da. Txartel hori aterpean bertan jasoko da, hotz-bolada bakoitzaren irekiera egunean, 10:00etatik 13:00etara. Txartela duen pertsonak eskubidea izango du hotz-boladak irauten duen egun guztietarako plaza izateko. Gainera, irekiera gauetan janaria banatuko da aterpean sartzerakoan eta irteterakoan.

Aurtengo neguan, berrikuntza gisa, arreta berezia eskainiko zaie kalean baliabideetara jo nahi ez duten pertsona bereziki zaugarrirei, Hestia eguneko zentroko hezitzaileek eta DYako boluntarioek eskainita.

Protokoloa aktibatzen den gauetan, arratsaldeko azken orduan eta goizeko lehen

Prensa oharra

Nota de prensa



orduan, hezitzaileak etxerik gabeko pertsonen gaua igarotzen duten lekuetara joango dira, haien egoera aztertuko dute, zerbait beroa eskainiko diete eta plaza batera joateko aukera emango diete, babes neurriren bat hartu behar den baloratzez gain.

Baliabidetara joan nahi ez badute, hotzetik babesteko produktu sorta bat emango zaie, besteak beste, lotarako zakuak eta esterilak, arropa termikoa, eskularruak, buff-a, txanoa, galtzerdiak eta barruko arropa.

Protokoloaren jarraipena egiteko, batzorde iraunkor bat ere sortu da, honako hauek osatua: Gizarte Ekintza zerbitzua, Udaltzaingoa, Ertzaintza, Babes Zibila, Arrats elkarte, SOS Deiak, DYA eta Osakidetzako Larrialdiak.

Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide iraunkorrak

Gogoratu behar da Neguko Aterpearen zerbitzua baliabide puntuala dela, eta egoera jakin batzuetan aktibatzen dela, baina Donostiako Udalak baditu hainbat harrera gune iraunkor, etxerik gabeko pertsonen laguntza integrala emateko.

Baliabide horiek 143 plaza egonkor eskaintzen dituzte urtean zehar etxerik gabeko pertsonentzat, eta aurtun 3 milioi euro bideratuko dira horiek kudeatzeko:

- **Udal Abegi Etxeak** (Mons pasealekua, 3) bizitoki bat behar duten pertsona guztientzat ostatua eskaintzen du, bereizketarik egin gabe, etxerik eduki ez edota ordaintzeko bitarteko ekonomikorik ere ez dutenentzat. 40 pertsonentzako tokia du, honela banatua: bi pertsonentzako 5 gela, 28 banako gela eta ezgaitasuna duten pertsonentzako 2 banako gela.
- **Gaueko Aterpea** (Zorroaga gaina) zenbait arrazoiengatik bizileku baliabiderik ez duten pertsonen arreta eskaintzea du helburu. 38 plaza dituen zerbitzu hau (22 iraunkor gehi 16, larrialdietan aktibatzen direnak) urteko hilabete guztietan zabaltzen da, gauero, iluntzeko 20:00etatik hurrengo eguneko 09:00etara.
- **Harrera-etxebizitzek** ostatu eskaintzen diete iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonen edo familiei (gehienez 4 hilabete, luza daitezkeenak), larrialdi edo gizarte-larrialdiko egoera baten ondorioz, edo etxe indarkeria-egoera bat gainditzeko bizileku bat behar dutenei, betiere babes-neurririk behar ez badute. Eta **tutoretzapeko etxebizitzak** bizitokia eskaintzen die bazterketa-arriskuan dauden pertsonen, egonaldi laburrekoak edo ertainekoak. Gaur egun, zerbitzuak 32 pisu ditu.
- **Eguneko Zentroa (Hestia)** etxerik gabeko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua da. Helburua da pertsona horiei eguneko erreferente alternatibo bat eskaintzea kalearen aurrean, eta aldaketa-prozesuak lantzea haien bizi-

Prentsa oharra

Nota de prensa



kalitatea eta autonomia pertsonala eta soziala hobetzeko. Zerbitzua egunero dago zabalik, asteburuak eta jaiegunak barne, eta hiru jarduera-eremu ditu: lokala bera, kalea eta guneko komunitarioak.

- Baliabide horiez gain, Udalak beste programa batzuk ere gauzatzen ditu, hala nola **Otorduak II**, etxerik gabeko pertsonentzako elikadura-programa bat. Gizarte Zerbitzuen Legeak ezartzen du elikadura ez dela prestazio propioa, baizik eta Gizarte Zerbitzuen osagarria, baina zalantzarik gabe, lehen mailako premia da, eta azken urteotan premia hori areagotu egin da Donostian.

Ate Irekien Zerbitzua 2022an

2022an, Ate Irekien Zerbitzua 10 gauez aktibatu zen, urtarrilean hiru alditan, eta 532 gaualdi zenbatu ziren:

- Urtarrilaren 14an: 37 gaualdi
- Urtarrilaren 15an: 47 gaualdi
- Urtarrilaren 16an: 48 gaualdi
- Urtarrilaren 17an: 58 gaualdi

- Urtarrilaren 20an: 54 gaualdi
- Urtarrilaren 21ean: 60 gaualdi
- Urtarrilaren 22an: 46 gaualdi

- Urtarrilaren 27an: 53 gaualdi
- Urtarrilaren 28an: 60 gaualdi
- Urtarrilaren 29an: 69 gaualdi

Donostia, 2023ko azaroak 16